

ARAZO EGOERA. 1.DBH

HIRUBIDE BHI.

<u>IZENBURUA:</u>	<u>SOINUAK AZTERTZEN</u>
<u>IKASGAIA:</u>	MUSIKA
<u>MAILA:</u>	1.DBH

TESTUINGURUA

Azken hamarkadetan urtez urte joan da aldatzen inguratzen gaituen paisaia. Pixkanaka, herriek eta hiriek hartzen duten azalera handituz joan da, eta eremu urbanoak, zabaltzen. Landa eta baserri-eremuak etxebizitzetaz beteriko auzo bihurtu ditugu, eta azalera txikiko nekazaritzak, estentsiboa deitzen diogunak indarra galdu duen heinean, joan dira desagertzen gure egunerokotasunetik horren ohikoak eta ezagunak izan diren zelai, belardi eta larreak. Haiak gertu izatetik, urruti edukitzera pasa gara. Ez ditugu jada ikusten, eta are gutxiago, ezagutzen. Hala, haien desagertpenarekin paisaia mota bat ari da galtzen. Habitat aniztasunean laguntzen duen paisaia bat, eta, era berean, biodibertsitatearentzat onuragarria dena. Paisaia aniztasunak espezie aniztasuna baitakar. Horrez gain, ordea, zelaien eta larreen desagertpenarekin ari dira joaten bizitzeko modu bat, kultura bat, eta hari loturiko ahozko ondare bat. Zelaien eta larren ingurune soinuak oso informazio baliotsua ematen digute lekua deskribatzeko, gure paisaia osatzen dute eta gure ingurunearen parte dira. Bilatu eta erakutsi inguru eskatzen digun esperientzia akustiko aberatsa: trumoiaren zaratak, ibaietako

soinuak, txoriak, arboletan jotzen duen haizea, zoroetan dabiltzan intsektuak, gaueko ixiltasuna... Horrek guztiak gure ingurumenaz jabetzen laguntzen digu, eta haren gaineko erabakiak hartzen.

ARAZOA

Soinu-zarata-ixiltasun proiektu bat prestatuko dute bakoitzaren Genially-an.

XEDEA

Soinu proposamenak egitea, gure ingurune gertuenak eskaintzen duen esperientzia akustiko aberatsa ezagutzeko eta erakusteko.

HELBURUAK

- Gure inguruneko esperientzia akustiko aberatsa ezagutzea eta erakustea.
- Eguneroko eremuan, musikaren, soinuaren eta isilunearen erabilpen desberdinak identifikatzea.
- Soinu-ingurune osasuntsuaren esanahiari buruzko erabakiak hartzea.
- Arte-produkzio bat planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Zenbait iturriren informazioa bilatzea, aukeratzea eta interpretatzea.
- Ekintzak eta eginbeharrak planifikatzeko eta betetzeko autonomia garatzea, bai eta erabakiak hartzeko ekimena ere.
- Ikerketa-lan pertsonala eta sortzailea egitea.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzea,

arte-proposamenak egiteko.

- Ideiak eta sentimenduak modu egokian, koherentez eta zehatzez jakinaraztea, testu-idazki batean.
- Soinu-eszenetan oinarritutako arte-produktu bat sortzea..

ATAZA

GENIALLY aplikazioarekin proiektu bat egitea eta aurkeztea, gure soinu-paisaia osatzen duten irudi eta soinu esanguratsuenak bilduz eta haiei buruz ikasleek dituzten iritziak jasoz

JARRAIBIDEAK

- Arazoaren egoera aurkeztuko da, eta lan-plana adostuko.
- Modu sortzailez hautatuko dituzte haien inguruko zenbait soinu interesgarri eta esanguratsu.
- Soinuak grabatuko dituzte, eta aurkezpenerako antolatuko dituzte.
- Aurkezpen bat sortuko dute Genially-an grabazio guztiekin eta deskribapenak, eskemak edo/eta izenburuak tartekatuko dituzte.
- Adjetiboekin justifikatuko dituzte bakoitzaren soinuak.
- Soinu-proiektua klasean aurkeztuko dute, ikaskideen aurrean.
- Prozesua eta lortutako ikaskuntza ebaluatuko dute (koebaluazioa eta autoebaluazioa).